

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak

## ASTEKO LABURPENA

2017ko irailaren 4tik 8rako astea

---

### ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

### ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: BPGd



### Datuaren analisisia

Euroguneko ekonomia % 0,6 hazi zen aurreko hiru hileekin alderatuta, lehenengo hiruhilekoko % 0,5eko hazkundera baino hamarren bat gehiago. Urte arteko kopuruetara ekarrita, % 2,3 egin zuen aurrera, aurreko hiruhilekoko urte arteko datua baino hiru hamarren gehiago.

Espainiaren kasuan, BPGd-a urte arteko % 3,1 hazi zen urteko bigarren hiruhilekoan, azken bi hiruhilekoetan baino hamarren bat gehiago, eta hiruhileko % 0,9. Horrenbestez, herrialdea euroguneko ekonomia nagusien buru da oraindik, Alemania % 2,1 hazi baitzen (% 0,6 hiruhilekoan) eta Frantzia eta Italia % 1,7 (% 0,5 hiruhilekoan) eta % 1,5 (% 0,4 hiruhilekoan) hazi baitziren, hurrenez hurren.

### Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Euroguneak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: EBZ

#### EBZren kalkuluak:

|      | Crecimiento |        | Inflación |        |
|------|-------------|--------|-----------|--------|
|      | Anterior    | Actual | Anterior  | Actual |
| 2017 | 1,90%       | 2,20%  | 1,50%     |        |
| 2018 | 1,80%       |        | 1,30%     | 1,20%  |
| 2019 | 1,70%       |        | 1,60%     | 1,50%  |

#### Datuaren analisia

EBZk urte honetarako KPlaren aurreikuspenetan ez zuen aldaketarik egin. 2018rako, ordea, inflazioaren pronostikoa apaldu zuen, ekainean iragarri zuenarekin alderatuta. Urte honetarako BPGd-aren iragarpenak hobetu zituen, eta hurrengo bietarako iragarpenak aurretik egindako kalkuluen pare ibili ziren. Erakundeak uztaillean igorri zuen tasen inguruko komunikatua errepikatu zuen. Interes-tasak % 0ko minimo historikoan mantendu zituen eta gordailu-erraztasuna (EBZk bankuei kobratzen dien tasa likidezia-soberakina bere kutxetan gordetzeagatik) % 0,4an. Draghik baieztatu zuen zorraren erosketen jarraipena eta zenbatekoaren gaineko erabakia (gaur egun 60.000 milioi eurokoak dira) "udazkenean" hartuko dela. 'Atzerapen' horrekin, euroaren gorakadaren eraginak sakonago aztertu nahi ditu, diru-erakundeari kezka pizten dion gaia baita.

#### Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: ZERBITZUEN PMIa



### Datuaren analisisia


Eurogunean, zerbitzuen PMIa 54,7ra iritsi zen, uztailleko 55,4tik behera egin ondoren, eta 54,9ko aurreikuspena baino pixka bat beherago kokatu zen. Hala ere, jardueraren hazkunde-erritmoa azken sei urtetako onenen artekoa izan zen. Zerbitzuen sektoreko jarduerak azterlanaren barruan dauden herrialde guztietan egin zuen gora. Hedapenik handiena Irlandan eman zen, azken hiru hiletako hazkunde handiena bizi izan baitzuen. Hazkunde-erritmoek behera egin zuten Frantzia, Italia eta Espainia, baina bakoitzaren segidetakoa batez bestekotik gora geratu ziren hiru herrialdeetan. Irlandaz gain, Alemania izan zen hazkundeak gora egin zuen herrialde bakarra. Nolanahi ere, gorakada txiki hori ez zen nahikoa izan Alemania euroguneko zerbitzuen sektoreko PIMaren hazkunde-rankingekeko azken lekutik urruntzeko.

### Adierazlearen azalpena

Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du Zerbitzuen PMIak, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinale. Zerbitzuen sektorea euroguneko BPGd osoaren bi heren denez, zerbitzuen PMIa egoera ekonomikoaren adierazle nabarmen bat da.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: MANUFAKTURENA EZ DEN ISMa



### Datuaren analisia


Manufakturena ez den ISMa gora egin zuen abuztuan, aurreko hileko 53,9tik 55,3ra. Horrela, laurogeita hamargarren hilabetez jarraian hazi da sektorea. Hala eskari berriek nola enpleguaren azpiadierazleak gora egin zuten abuztuan.

### Adierazlearen azalpena

Manufakturena ez den ISM indizeak hileroko erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: BPGd eta ZERBITZUEN PMIa



### Datuaren analisia

Apirila eta ekaina bitartean, BPGd-ak % 0,6 egin zuen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, hasierako aurreikuspena baino lau hamarren gutxiago. Japoniako ekonomia % 2,5 hazi zen aurreko urtearen aldean, argitaratutako lehenengo datuak baino 1,5 puntu gutxiago, beraz. Beherantz berrikusitako datu horiek gorabehera, apirila eta ekina bitartean, munduko hirugarren ekonomia seigarren hiruhilekoz jarraian hazi egin da, hamarkada luze batean izan duen boladarik onena. Japoniako ekonomiaren zutabe nagusi den barne kontsumoaren datua espero baino okerragoa izan zen, eta horren ondorio da beherakada. Bestalde, zerbitzuen PMIa 52tik 51,6ra jaitsi zen abuztuan, bigarren aldiz jarraian, eta otsailetik izan duen mailarik baxuenean dago.

### Adierazlearen azalpena


Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du Zerbitzuen PMIak, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: ZERBITZUEN PMIa



### Datuaren analisia

Zerbitzuen sektoreko jarduera azken hiru hiletan baino biziago hazi zen abuztuan, eta mailarik altuenean kokatu da 2016ko abendutik. Caixin/Markitek prestatzen duen PMIa uztailera 51,5etik 52,7ra igo zen. Negozio berriak nabarmendu ziren, 53,1 puntura heldu eta azken hiru hiletako portaera onena erakutsi zutenak. Gainera, enpresek langile gehiago kontratatu zituzten.

### Adierazlearen azalpena

Zerbitzuen PMIa hileroko erostaketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erostaketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

| Data  | Erem           | Adierazle                                 | Aurreiku |
|-------|----------------|-------------------------------------------|----------|
| 09/12 | Erresuma Batua | Urte arteko KPIa                          | % 2.7    |
| 09/13 | Japonia        | Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea | % 3.0    |
| 09/13 | Alemania       | Urte arteko KPIa                          | % 1.8    |
| 09/13 | Espainia       | Urte arteko KPIa                          | --       |
| 09/13 | Erresuma Batua | Erregistratutako langabezia               | --       |
| 09/13 | Eurogunea      | Hileko SA industria-ekoizpena             | % 0.2    |
| 09/13 | Eurogunea      | Urte arteko enplegua                      | --       |
| 09/13 | Estatu Batuak  | MBA Hipoteken eskaria                     | --       |
| 09/14 | Txina          | Urte arteko xehekako salmentak            | % 10.5   |
| 09/14 | Txina          | Urte arteko industria-ekoizpena           | % 6.6    |
| 09/14 | Japonia        | Urte arteko industria-ekoizpena           | --       |
| 09/14 | Frantzia       | Urte arteko KPIa                          | --       |
| 09/14 | Erresuma Batua | Banku-tasa Ingalaterrako Bankua           | % 0.250  |
| 09/14 | Estatu Batuak  | Hasierako langabezia-eskaerak             | --       |
| 09/14 | Estatu Batuak  | Urte arteko KPIa                          | % 1.8    |
| 09/15 | Eurogunea      | Balantza komertziala SA                   | --       |
| 09/15 | Estatu Batuak  | Manufakturen inkesta New York             | 19.0     |
| 09/15 | Estatu Batuak  | Hileko industria-ekoizpena                | % 0.1    |
| 09/15 | Estatu Batuak  | Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea    | 96.5     |
| 09/15 | Estatu Batuak  | Oraingo egoera Mich. U.                   | --       |
| 09/15 | Estatu Batuak  | Aurreikuspenak Mich. U.                   | --       |

## BURTSAK:

Europako indizearen itxiera laua, eta negatiboa munduko gainerako burtsa nagusietan, tentsio geopolitikoak, Europako Banku Zentralaren bilerak eta urakanek AEBetan izandako eraginak protagonista izan diren aste batean. Irailaren 3an, Ipar Koreak orain arteko bere bonba atomikorik bortitzena probatu zuen. Gainera, mehatxu-trukeak ez ziren giroa baretzeko lagungarri izan. Momentuz, arretaz jokatzeko ari badira ere, Ipar Koreako probokazioei erantzun ekonomikoa eman behar zaiela uste dute inbertsiogileek, eta gatazka armatu bati ekin baino, nahiago dute isun handiagoak ezartzea. Bestalde, EBZk ez zuen aldaketarik egin interes-tasetan, eta zorraren erosketaren jarraipenari eta zenbatekoari buruzko erabakiak, azkenean, “udazkenean” hartuko direla baieztatu zuen. ‘Atzerapen’ horrekin, euroaren gorakadaren eraginak sakonago aztertu nahi ditu, diru-erakundeari kezka pizten dion gaia baita. Inflazioaren aurreikuspenak pixka bat murriztu zituen. EBZren iritzi apalek hein handiagoan eragin zioten Europako banku-sektoreari, eta sektore horretan pisu gehien duten indizeen bilakaera negatiboa azaltzeko balio du horrek.

## ERRENTA FINKOA:

Inbertsiogileek Ipar Korearen egoeraren aurrean daukaten jarrera defentsiboaren eta EBZren eta Fed-en adierazpen laxoen ondorioz, zor publikoa indartuta ateratzen, eta erosketak bideratu ziren Atlantikoaren bi aldeetan. Europan, aurreikuspenen arabera, EBZk bonuen erosketa erritmoa apalduko du, eta AEBetan, Fed-ek tasak abenduan igotzeko aukerak % 21koak dira soilik, merkatuaren arabera. Kreditu-merkatua egonkor dago.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroaren sendotasuna eta dolarraren ahuldadea nabarmendu behar dira. Merkatuek dibisaren inguruko mezu gogorragoa espero zuten EBZren aldetik. Bestalde, Trumpen erreforma ekonomiko nagusien bideragarritasunari buruzko zalantzek inflazioaren eta AEBtako tasen igoeraren aukerak hoztu dituzte, eta horrek dolarra kaltetu zuen. Testuinguru horretan, eta atzean tentsio geopolitikoak daudela, yena indarra irabazten ari da, eta errearen prezioa azken urteko maximoetan dago. Petrolioari dagokionez, urakanen eraginez produkzioa apaldu egin da AEBetan, eta horren ondorioz, prezioa igo egin da.

| INDICES              | PRECIO    | %Variación | % Var |
|----------------------|-----------|------------|-------|
|                      |           | Semanal    | 2017  |
| MSCI WORLD (Eur)     | 166,88    | -1,24      | -1,57 |
| IBEX 35              | 10.129,60 | -1,90      | 8,31  |
| DJ EURO STOXX 50     | 3.447,69  | 0,11       | 4,78  |
| DJ STOXX 50          | 3.058,45  | 0,00       | 1,59  |
| FTSE                 | 7.377,60  | -0,82      | 3,29  |
| S&P 500              | 2.461,43  | -0,61      | 9,94  |
| Dow Jones            | 21.797,79 | -0,86      | 10,30 |
| NASDAQ               | 6.360,19  | -1,17      | 18,15 |
| NIKKEI 225           | 19.274,82 | -2,12      | 0,84  |
| MSCI EMERGENTES (Eu) | 356,53    | -1,19      | 11,04 |
| MEXBOL               | 50.083,80 | -1,95      | 9,73  |
| BOVESPA              | 73.078,85 | 1,61       | 21,34 |
| SHANGHAI             | 3.524,05  | -0,07      | 8,45  |
| Rusia Rts Moscú      | 1.119,61  | 1,73       | -2,84 |

| Tipos Gobiernos  | Nivel | Variación | Var 2017 |
|------------------|-------|-----------|----------|
|                  |       | Semanal   |          |
| ALEMANIA 2 AÑOS  | -0,76 | -0,03     | 0,01     |
| ESPAÑA 2 AÑOS    | -0,32 | 0,04      | -0,05    |
| EE.UU 2 AÑOS     | 1,26  | -0,08     | 0,07     |
| ALEMANIA 10 AÑOS | 0,31  | -0,07     | 0,10     |
| ESPAÑA 10 AÑOS   | 1,54  | -0,05     | 0,16     |
| EE.UU. 10 AÑOS   | 2,05  | -0,12     | -0,39    |
| ALEMANIA 30 AÑOS | 1,11  | -0,05     | 0,17     |
| ESPAÑA 30 AÑOS   | 2,80  | -0,02     | 0,18     |
| EE.UU. 30 AÑOS   | 2,67  | -0,11     | -0,40    |

| Spread de credito (pb)      |        |       |        |
|-----------------------------|--------|-------|--------|
| MARKIT ITRX EUROPE 06/22    | 53,50  | -0,25 | -18,54 |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22 | 234,12 | 0,29  | -54,59 |

|              | Nivel  | %Variación | % Var |
|--------------|--------|------------|-------|
|              |        | Semanal    | 2017  |
| Dólar / Euro | 1,20   | 1,47       | 14,41 |
| Yen / Euro   | 129,79 | -0,74      | 5,52  |
| Libra/ Euro  | 0,91   | -0,47      | 6,85  |

| Materia Primas    | Nivel    | %Variación | % Var |
|-------------------|----------|------------|-------|
|                   |          | Semanal    | 2017  |
| Petroleo (Brendt) | 53,58    | 2,23       | -3,30 |
| Oro               | 1.346,45 | 1,63       | 16,85 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.